

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

79/2021 Mozioa, urriaren 27koa, aurreko asteotan izan diren indarkeria-ekintzak eta poliziaren aurkako borrokak gaitzesteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

79/2021 Mozioa, urriaren 27koa, aurreko asteotan izan diren indarkeria-ekintzak eta poliziaren aurkako borrokak gaitzesteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek beren gaitzespen irmoa adierazten dute azken asteotan Euskadiko hiri eta herrietan izan diren indarkeria-ekintzen eta poliziaren aurkako erasoen aurrean; izan ere, gertakari horiek bizikidetzan nahasten duten zenbait pertsonak izandako elkartasunaren eta gizalegearen aurkako jarreraren erakusgarri dira eta, gainera, pandemiaren ondorioz ezarritako osasun-arauak urratu dituzte.

2. Arabako Batzar Nagusiek beren babes eta laguntasuna adierazten diote Euskadiko Poliziari COVID-19k eragindako pandemiari aurre egiteko ezarritako osasun-araudia betearazteko egin izan duen lanean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 27a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA